



ARANTZAKO UDALA

Nik, Nagore Madariaga Iriarte, Arantzako Udaleko idazkariak,

ZIURTATZEN DUT:

Arantzako Udaleko alkateak, 2023ko martxoaren 20an, osoki idatzirik dagoen honako ebazpen hau egin zuela:

24/2023 EBAZPENA, MARTXOAREN 20KOA, ARANTZAKO UDALEKO ALKATEARENA, ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA FINKATZEKO PROZESU BEREZIAREN BARNEAN, ENPLEGU PUBLIKOAN BEHIN-BEHINEKOTASUNA MURRIZTEKO PREMIAZKO NEURRIEI BURUZKO ABENDUAREN 28KO 20/2021 LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, LANPOSTU HUTSAK MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA DELA ETA, IZANGAI ONARTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ONARTZEN DUENA.

Arantzako Udaleko alkatearen azaroaren 22ko 147/2022 Ebazpenaren bidez lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi zen, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Merezimendu-lehiaketaren deialdia 2022ko azaroaren 28ko 237. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratu zen.

Horrela bada, eskabideak aurkezteko epea 2022ko abenduaren 19an bukatu zen.

Aipaturiko deialdiaren 6.1. oinarriko bigarren paragrafoan xedaturikoaren arabera, baztertutako izangairik ez badago, zuzenean onetsiko da onartuen behin betiko zerrenda, eta toki erakundearen atariko deialdiaren web fitxan argitaratuko da.

EBATZI DUT:

1) Aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 legean xedaturikoaren arabera, izangai onartuen behin betiko zerrenda onartzea, honako hauek izanik:

1.	URCHEGUI TELLECHEA, ESTIBALIZ
----	-------------------------------

2) Ebazpen hau Arantzako Udaleko web orrian argitaratzea.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ZIURTAGIRI hau ematen dut, alkatearen oniritziarekin.

Arantzan, 2023ko martxoaren 20an.

ALKATEAREN oniritzia,

IDAZKARIA,

Dabid Iturria Almandoz

Nagore Madariaga Iriarte